

Belaunaldiak Catalunyan

Deia, 1983-07-08.

Herenegun eman nuen ikuspuntua belaunaldiaz izan zen, eta noski, gure artekoaz aritu nintzen.

Lana agertu zen egun berean, kasualitatea, Catalunyakoaz arduratzen den bat heldu zait eskuetara. Jaso berria duten liburu hau nire lagun Josep Miret i Monsó-k Venezuelan idatzi eta Bartzelonan agertutako liburua da: *La autoridad paterna y el entendimiento con los jóvenes*.¹ Belaunaldiari dagokion zatia ez da berea, psikiatrarena, hitzatzeko edo epilogo modura idatzitako Carlos Ulises Moulines-ena baizik: "Entendimiento y conflicto entre generaciones".

Interesgarria iruditzen zaidanez gero, saiatuko naiz honen muina ematen.

Lan hau konkretuki Catalunyari eta aldi berezi bati lotua dago: 1930-1966 arteko hiru belaunaldi. Honetarako, Ortega y Gasset-en eskema darabil: belaunaldi batek duen eragin historikoa hamabost bat urtekoa da, eta tiroaren parabola antzeko lerroa deskribatzen du.

Eta erreferentzi nagusi bezala. Gerra Zibila.

Kontexto honetan harturik, aipatutako 35 urtetan hiru belaunaldi bereizi ditzakegu: 1. Errepublikara garaiak jokatu eta gero gerra egin behar izan zutenak: belaunaldi baten goren punta eta hondatzea berekin dituenak. 2. Gerrondoak. 3. Honen ondorengoak, Espainian liberalizazio eta Europeizazioak, 1966 arte.

Hau, eskema hutsa da, noski, ez egia soila.

Egilearen asmoak hobeto uler ditzagun, hara ematen dituen kriterio batzuk: a) Errepublika eta gerrako gazteak, 1948-50 urtetan gazte zirenengandik (1-2) pentsamoldez oso ezberdinak dira. b) Horiek, berriz, hurrengo 1964goko gazteen belaunaldikoengandik (2-3) oso ezberdinak, d) Gezurrantzekoak badirudi ere, lehen aipatutako belaunaldiak zerikusi gehiago du hirugarrenarekin (1-3) bigarrenarekin baino (1-2).

Lehenengo eta hirugarrenaren (1-3) artean, dio egileak, harreman errazagoak gertatzen dira: Bere ustez, buru-egitura (estructura mental) berdinekoak dira, historia, politika eta ekonomi aldetik inguramen berdintsuagoa izan dutelako. Gazteenak, zaharreganako (3-1) errespeto handia k funtsezko zerbaitetan ahalegindu zirelako.

Ez da gauza bera gertatzen bigarren eta hirugarren (2-3) belaunaldien artean; "hitzegitea bera ere zail egiten zaigu"; bigarrenak *ezer egin ez dutenen belaunaldia* dirudi, lanak eta goseak pasa ondoren futbolearen edo zinean murgildu izan dena; hemen ere egin behar dira salbuespenak, bestetan ere egin behar diren legez.

Ba da hemen, behar bada, gure kasurako puntu mesedegarririk.

¹ Editorial Nova Terra, Barcelona, 1970.